

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gazteei zuzendutako aplikazio bat da, 14-25 tarte inguruko gazteentzat, genero guztiak kontuan hartuz. Hori bai, aplikazioa erabiltzeko, sare sozial bat denez funtsean, **14 urtetik gorakoak** bakarrik harpidetu ahal izango dira app-an.



Argi utzi nahi dugun gauza bat, 2 astean behineko chat-erako bikote elkarketa egiterako momentuan adina kontuan hartuko dugula da. Hau da, 3 taldetan sailkatuko dira, adinaren arabera: lehenik eta behin, 14 eta 16 urteen arteko chat-ak egongo dira, bestetik 16 eta 18 urte bitartekoenak eta azkenik 18 urtetik gorakoak. Hau da, chat-erako bikoteak eratzeko hauen adin-tartea kontuan hartuko da, eta ez da 14 urteko bat 25 urteko batekin chateatzen arituko gure app-an.

Bestalde, aplikazioa dohakoia denez, edozein gizarte mailako pertsonak erabili dezakete.

App-a aproposa da sentimenduak adierazteko zailtasuna duten pertsonentzat eta bere arazoak besteei elarazteko beharra dutenentzat.

Musikaren jarraitzaileentzat eta abesti berriak ezagutu nahi dituztenentzat ere aplikazio oso egokia da.

Horrez gain, argi utzi nahi dugu aplikazio hau ez dela bakarrik osasun mentaleko arazoak dituztenek erabiltzeko, izan ere, denentzat izan daiteke lagungarria eta entretenigarria LetMeFeel aplikazioa, eta edozein gazte animatuko genuke erabiltzera.

Azkenik, aplikazio hau estatu mailara zuzenduta dago, Espainiara zehazki. Hala eta guztiz ere, edozein herrialdeetako gailuetan eskuragarri egongo da, nahiz eta guk publizitatea estatu mailara bideratu.